

DBH 1
maila

KONTSUMITZAILEEN IRIZPIDEAK PRODUKTUAK EROSTERAKOAN

Aurtengo ikasturtean EA21ean **Ekoizpen eta Kontsumo Jasangarrria** landuko dugu. Gaia oso zabala bada ere, zuek, **merkatariak produktuak saltzerakoan erabiltzen dituzten irizpideak** aztertuko dituzue. Irizpide horiek ezagutzeko, herriko merkatariari galdetegia egingo diezue. Galdetegien emaitzak aztertu eta ondorioak atera ondoren, hobekuntza proposamenak aterako dituzue Udaletxera joandakoan alkateari jakinaraziko dizkiozuenak.

Nola bete galdetegia? Galdetegia interneten bete beharko duzue eta bidali. Horretarako, zuen irakasleak emango dizue klabea. Inkesta guztiak jasotzen ditugunean, Ekoetxeakoak arduratuko gara emaitzak atera eta ikastetxera bidaltzeaz zuek ondorioak atera ditzazuen. Dena den, emaitzak gure web orrian ere zintzilikatuko ditugu: www.ingurugiroetxea.org

Jarraian, azken bi urteetan Eskolako Agenda 21 programaren barruan hartutako konpromisuak azaltzen dira. Betetzen al dituzue?

KONPROMISOAK	BAI	EZ
Etxeko argiak eta eskolakoak behar ez ditugunean itzali egingo ditugu eta argi naturala gehiago erabiliko dugu.		
Berogailua eta aire girotua behar direnean bakarrik piztuko ditugu (gradu batek kontsumoaren %7a suposatzen baitu) eta hauek piztuta daudenean atek eta leihoak itxita edukiko ditugu.		
Ikastetxeko argi eta ur kontsumoa murrizten saiatuko gara neurri ezberdinak hartuz (kontsumo gutxiko edo LED bonbillak erabili, kanpainak egin, pegatinekin gogorarazi), eta iturrien erabilera egokia bultzatuko dugu.		
Bide motzak egiteko kotxerik ez dugu hartuko eta ikastetxetik gertu bizi garenok oinez edo bizikletan etorriko gara.		
Garraio publikoa erabiliko dugu bide luzeetan eta inguruko herrietara joateko, eta kotxea hartu beharra dugunean partekatzen ahaleginduko gara.		
Erosketa gehienak herri barneko dendetan egiten saiatuko gara.		

DBH 1
mailaKONTSUMITZAILEEN IRIZPIDEAK
PRODUKTUAK EROSTERAKOAN

KONPROMISOAK	BAI	EZ
Poltsa edo tupper banaketak egiten direnean erabili behar ditugunak bakarrik eskatuko ditugu eta ez ditugunak erabiltzen itzuli.		
Eskolan fitxak inprimatu eta hainbeste orri gastatu beharrean ariketak ordenagailuan egiten saiatuko gara.		
Hondakinak ondo bereizten eta konposta egiten jarraituko dugu.		
Material ekologikoa gehiago erabiliko dugu.		
Ikastetxeko nahiz kanpoko berdeguneak eta landaretza zaindu eta errespetatuko ditugu.		
Balio ez duten boligrafo, errotuladore, mugikor, pila, CD ... bilketarako dauden ontziak erabiliko ditugu eta paper gutxiago gastatuko dugu ondo erabiliz.		
Udaletxean antolatzen diren garbiketa eta landaketetan parte hartuko dugu.		
Lorategiak eta belardiak errespetatuko ditugu bertara zaborrik ez botaz, landareak ez puskatuz, zuhaitzak bakean utziz, zakur kakak jasoz, bizikletan derrapeak egiten ez ibiliz...		
Gure etxean dauden landareak ere hobeto zainduko ditugu.		
Jatekoa eramateko (ikastetxera, mendira...) ontzi berrerabilgarriak erabiliko ditugu.		
Oporretara joan behar dugunean, gurasoei urrutira ez joateko eskatuko diegu. Bertan badaude oporrak igarotzeko toki onak.		

DBH 1
maila

KONTSUMITZAILEEN IRIZPIDEAK PRODUKTUAK EROSTERAKOAN

GALDETEGIA herriko kontsumitzaileei egiteko

Aurten, Azpeitiko eskoletan, Eskolako Agenda 21 programaren barruan, **ekoizpen eta kontsumo jasangarria** lantzen ari gara. Gure asmoa da, alde batetik, herritarren erosketa ohiturak aztertzea eta, bestetik, dendarien eta kontsumitzaileen iritziak jasotzea. Horretarako galdetegi bat prestatu dugu. Ba al duzu tartetxo bat galderak erantzuteko?

Sexua: gizona emakumezkoa

Adina: 25 bitartekoa 26-45 46-60 61-90

1.- Zer maiztasunekin egiten dituzu erosketak?

	egunero	astean behin	astean bitan edo gehiagotan	hilean behin	noizean behin
Elikagaiak					
Haragia/arraina					
Arropa eta oinetakoak					
Garbiketa produktuak					
Kosmetika					
Tresna elektronikoak					
Liburuak / aldizkariak					
Jostailuak					



2.- Erosketak egiteko denda bat edo bestea aukeratzekoan zeri ematen diozu garrantzia?

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Gertutasunari | <input type="checkbox"/> Kalitatezko produktuak edukitzeari |
| <input type="checkbox"/> Aparkalekuak gertuan egoteari | <input type="checkbox"/> Kalitate/prezio erlazioa edukitzeari |
| <input type="checkbox"/> Saltzailearen jarrerari | <input type="checkbox"/> Inguruan beste zerbitzuak edukitzeari |
| <input type="checkbox"/> Aukera zabala eskaintzeari | |

DBH 1
maila

KONTSUMITZAILEEN IRIZPIDEAK PRODUKTUAK EROSTERAKOAN

3.- Produktuak erosterakoan zeri ematen diozu garrantzia?

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> produktu merkeagoak izateari | <input type="checkbox"/> produktuek bildukigutxi edukitzeari |
| <input type="checkbox"/> produktuak kalitatezkoak izateari | <input type="checkbox"/> ziurtagiri ekologikoa edukitzeari |
| <input type="checkbox"/> kalitate/prezio erlazioari | <input type="checkbox"/> ez diot ezer ematen garrantzirik |

4.- Normalean, zer motatako komertzioetan egiten dituzu erosketak?

	azokan	herriko denda txikietan	herriko supermerkatuan	azalera handiko komertzioetan	internet bidez
Elikagaiak					
Haragia/arraina					
Arropa eta oinetakoak					
Garbiketa produktuak					
Kosmetika					
Tresna elektronikoak					
Liburuak / aldizkariak					
Jostailuak					

5.- Internet bidez erosten baduzu, zer erosten duzu?

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Elikagaiak | <input type="checkbox"/> Tresna elektronikoak |
| <input type="checkbox"/> Arropa eta oinetakoak | <input type="checkbox"/> Liburuak eta aldizkariak |
| <input type="checkbox"/> Garbiketa produktuak | <input type="checkbox"/> Jostailuak |
| <input type="checkbox"/> Kosmetika | |

6.- Nolako produktuak erosten dituzu?

- Berriak
- Bigarren eskukoak
- Ekologikoak / bertakoak / besteak
- Bertako ekoizle berrienak

DBH 1
maila

KONTSUMITZAILEEN IRIZPIDEAK PRODUKTUAK EROSTERAKOAN

7.- Zergatik erosten duzu internet bidez?

- merkeago saltzen direlako
- eskaintzak aprobetxatzen ditut
- aukera gehiago dagoelako
- erosotasunagatik
- itzultzeko erraztasunagatik
- ohiturak aldatu ditut, nire denbora beste modu batean kudeatzen dut

8.- Azken urteotan Azpeitian merkataritza indar handia hartzen ari da, denda berriak irekitzen edota urteak dituztenak berritzen. Honela, merkatalgunea alde zaharretik beste auzoetara zabaldu da, eta herritarrei inguruko herrietara edo hiriburura mugitu beharrean, herrian bertan erosteko aukera zabala eskaintzen zaie.

a.- Nabaritzen al duzu herrian zerbitzuen, denden, bigarren eskuko denden faltarik zure erosketa guztiak edo gehienak herrian bertan egin ahal izateko? Zer?

.....

.....

b.- Zer eskatuko zenioke Udalari herritarrek herrian egin ahal izateko salerosketa guztiak eta horrela herriko kontsumoa indartzeko?

.....

.....

c.- Zer esango zenieke herritarrei herrian eros dezaten?

.....

.....

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

